zuzendariari

(0034) 943 300 222

zuzendariari@egunkaria.com

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Zientziaren itzulpenaz

Joseba Pineda Ortiz (*EHUko Irakasle Laguna)*

Autoitzulpena egiten duen zientzialariaren formakuntza arautuaz arduratsu ageri da Iñaki Ugarteburu azaroaren 30eko artikuluan. Kontu hau aztertu aurretik, argitu beharra dago ingelesezko hitz teknikoak idazki zientifikoetan finkatzen direla, mundu zabaleko komunitate zientifikorako artikulu eta liburuetan alegia. Ikerkuntza ingelesez argitaratzen dugun zientzialari euskaldunok, berriz, non edo nola bermatuko dugu euskarazko terminologia teknikoa? Horretarako, zalantzarik gabe, hiztegigintza garrantzitsu dugu, non elkarlana egin behar dugun hizkuntzaren arazoetan trebatutako itzultzaileek eta terminologia berriaren premiaz jabetzen garen ikertzaileok. Baina hiztegi eta dibulgazio-artikuluez gain, euskarazko hiztegi teknikoa zientzialarien arteko erabilera normalizatuan oinarritu behar da. Hona hemen etortzen zaidan itauna: nola garatu hizkuntza teknikoaren erabilera normalizatua (egunerokoa) zientzialarien artean?

Lehenengoa, formazioa ezinbestekoa dugu itzulpen teknika eta metodoak ikasteko, baina ikertzaileok benetako itzultzaile bihurtzeko harrokeria izan gabe. Bigarrena, adierazi beharra dago espezialista guztiak ez direla gai izango hizkuntza teknikoen premiez ondo jabetzeko. Hirugarrena, Unibertsitateko zientzialariok ikerketetan murgildua izateaz aparte, irakasle egiten dugu lan, zeinek irakaskuntzarako formazio sendoa eta eguneratua eskatzen digun. Gainera, euskara adarreko irakasleek erdaldunek baino ordu gehiago emateko eginkizuna agerian dago. Laugarrena, euskara tekniko normalizatua lortzerako bidean, Unibertsitateak ikerkuntzarako formazioa bultzatu behar du ikasle euskaldunon artean. Azkenik, formazio-plangintza arautuari dagokiona. Gure azkeneko helburua hizkuntza normalizatua izango bada, beldur naiz formazio arautuen bidez normalizazioa lortzetik urrunduko ote garen.

Irungo Alcampon ENArik ez

Ion Elizalde • HONDARRIBIA

Duela hilabete batzuk Euskal Nortasun Agiria egin nuen. Hortik aurrera hainbat tokitan erabili izan dut. Leku guztietan, normaltasun osoz eta normala den bezala onartu egin didate identifikatzeko era hau. Hala ere, duela aste batzuk Irungo Alcampon bertan utzi behar izan nuen egindako erosketa osoa, ez baitzidaten onartu ENA. «Goikoen» agindua zutela esan zidaten. Horrenbestez, «goiko» horien agindua aldatzen ez den artean, bi aukera bakarrik uzten dizkidate. Bata, Irungo Alcampora ez joatea da, eta bestea, bertara joan, erosketak egin, ENA aurkeztu eta ez badidate onartzen, erosketak hor utzi. Ez dut ulertzen zergatik espainolei onartzen dieten euren karneta eta euskaldunoi ez. Alcampoko «goikoek» emaniko agindua berraztertuko dutelakoan, ENA erabiltzera animatzen zaituztet, inongo konplexurik gabe.

montxo

galdeiozu...

ANABEL ARRAIZA

Aktorea eta kantaria

Non ibiltzen zara erosoago, oholtza gainean edo kamera aurrean?

Maitane Inza (Bilbo)

Ez da batere erraza bata zein bestea aukeratzea. Oholtza gainean zaudela, jendeak taldearekiko duen erantzuna oso garrantzitsua da. Egia da azken finean plaza animatzea taldearen lana dela, baina egia da baita ere jendearengandik jaso ahala musikariak errazago duela berea ematea. Orduan oso eroso sentitzen da bat. Aldiz, azterketa bat egiten ariko balitz bezala sentitzen baduzu jendea, ez da oso erosoa izaten. Eta kamera aurrean, berriz, oso egoera konprometitu edota zehatzen batean, noski, ez zara eroso sentitzen, baina bai oholtza gainean eta bai kamera aurrean horrelako egoerak suertatzen direnean, nola hala aurre egin behar zaie. Dena den, kamera atzean dagoen jendea ez duzu ikusten, eta plazan, berriz, bertan duzu; beraz, erantzuna askoz ere aberatsagoa da jasotzen duenarentzat.

Abenduaren 11tik aurrera **Pello Esnal • idazlea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Asisko Urmeneta

Zedemoniez

Amen'. —Emile Larrek ez omen dauka prolemarik idazle modernoekin, eta Hur Apalategirekin berarekin mintzatzen omen duzu tarteka; Bigarren honek liburu kuttuna gomendatu berri digu *Barkatu ama*tik . «%100 Basque?» «Les Particules Elementaires?» «Euskal Karma?» «Botoiletan?» Ez! «Anna Karenina!!!». Izatekotan, Apalategik duke arazorik «Ene artzain-etxolak-en» hoolliganarekin.

Hemen. —Badu hilabete eta erditsu «Mantxut Mantxut» presentatu genuela, kamerak, diputatu ezpontzorratzailea eta oro, Donostian. Geroztik media haboroxenetan agertu da berria: ETB 1 eta 2, Gara, Diario de Noticias, Diario Vasco, Argia; Euskarazko prentsa satirikoak ere gaitu aipatu,hala nola Nafar Izkuntzak («erositu ezazute argitarringi au») eta Ximun Peyranek («debria-en afea houna»). EGUNKARIAko irakurleak ordea eztu liburuaren berri mikorik jaso; ez kritika onik, ez txarrik, ez eta 0,7 axola ere; eta enaiz hitzaldiez eta sareaz ari. Zinezko euskaldunak, beharrik, Diario de Navarra eta Le Miroir de la Soule leitzen tu.

Himen. —*Las Recetitas de las Monjitas* izan ohi da liburu feriatuena Durangokoan,letren egoera katatonikoaren isla. Ekoterrorista mantalindun horiek, bertze alde, espezie babestu zenbait kalitzen dizute lehengai, sagarroia kaso.

Omen. —Antrax baino letalago, eta piraten gutun beltza baino ezinbertzeago: Akademiaren omenaldia jasotzen badunk, hila haiz.

Humain. —Publirreportaiari akaballa emateko, derradan ezkarela prefet baina suprefet,eta delako «Mantxut Mantxut» akastun sortu zaigula erdal itzulpenen parteetan. Aria horretaz bigarren edizionea obratu dugu, xuxendua baina ez emendatua, eta gaurgero baldin bazenu erosirik edo ebatsirik, igor ezazu, eta zalu turnatuko zaizu.